

2012KO APIRILAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko lauretan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko martxoaren 7ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN USTIAPENA.

Ezagutzera eman da, 2012ko apirilaren 13ko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“2012ko urtarrilaren 18an Gobernu Batzordeak erabaki zuen, Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena kontratatzea. Horretarako baldintza plegua erabili zuen eta deialdia GAOean argitaratu zen.

Legeak ezarritako epean, bakarrik HTK FILM, Sociedad Limitada enpresa aurkeztu zen.

A kartazalaren dokumentazioa kalifikatu ondoren, hainbat dokumentu falta zirela egiaztatu zen eta automatikoki ebaluatzen ez diren irizpideei buruzko dokumentazioa osatzen duen kartazala ireki eta gero, ikusi zen baldintza pleguan eskatzen zen Jardueren Memoria ez zela aurkeztu.

Nahiz eta Idazkariak ohartarazi prozedura hutsik uztea zegokiola egokia ez zen eskaintza aurkeztu zelako, Kontratazio Mahaiak 2012k otsailaren 21ean egindako bileran erabaki zuen lizitatzailari errekeritzea kaudimena, pertsonalaren subrogazio konpromisoa eta baldintza pleguan jasotako Jarduera Memoria baloratzeko kontutan izan beharreko xehetasunei buruz dokumentazio osagarria aurkezteko.

Hiru laneguneko epea emanda gero eta lizitatzailerak zerbitzu tekniko eta juridikoekin hainbat bileren ondoren, erabaki zuen aurkeztutako eskaintza erretiratzea arrazoi hauengatik:

- Ustiapenean oreka finantzieroa ez egotearen beldurra, mantentze gastuak zehaztu gabe egoteagatik eta pelikulei buruzko kostuaren informazioa beraiena eta udalarena berdina ez izateagatik.
- Kontratuaren egikaritze epea bat etortzea ikusle gutxien dagoen urteko sasoiarekin eta hau gehi kontratuak duen egikaritze epe laburrak eragozten du kontratu-ustiapenaren bideragarritasuna aztertzen.
- Pertsonalaren subrogazioa eta berrantolatzeko arazoa.

Horren ondorioz, egin behar dena da prozedura hutsik utzi eskaintzak ez daudelako. Jarraian deialdi berria egin beharko litzateke beste baldintza plegu bat onartuz, baina kontutan izanda aipatu diren arrazoiak, konkurrentzi faltaren zergatia izan daitekeelako.

Horretaz jabetuz, plegu berria egin da baldintza batzuk aldatuz, hala nola: kontratua luzatzeko aukera egotea, lizitazio prezioa, kostu eta sarrerak gehiago zehaztea, mantentze gastuak eta inbertsioak ere zehaztea adieraziz noren kontura izango diren, subrogatzeko pertsonal gutxiago izatea denboraldi izaerako hiru kontratu amaitu egin direlako.

Beraz, Kontratazio Mahaiak, Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Prozedura irekiaren bidez Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena kontratatzeke eta 2012ko urtarrilaren 24ko GAOean argitaratutako deialdia hutsik uztea.

Bigarren. Deialdi berri bat egitea prozedura berdina erabiliz, beste baldintza plegu bat onartuz.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Jarrian ezagutzera eman da, 2012ko apirilaren 18ko Kultura Batzordearen proposamena, hain zuzen ere, Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena prozedura irekiaren bidez kontratatzeke baldintza plegu onartzea eta deialdi publikoa egitea. Baldintza pleguaren ezaugarri bereziak ondorengoak dira:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Litzazio prezioa: 84.072,75 € + gehi BEZri dagokiona.

4.- Epea: urtebetekoa, beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

5.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 30 puntu.
- Jardueren memoria: 30 puntu.

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- HAURRENTZAKO (Berritsu eta Txelotxe) ETA NERABEENTZAKO (Eizu) ZERBITZUA ESLEITZEA..

Ezagutzera eman da, 2012ko apirilaren 20ko Kontratazio Mahaiaren proposamena:

“2012ko martxoaren 7an Gobernu Batzordeak erabaki zuen, Haurrentzako (Berritsu eta Txelotxe) eta nerabeentzako (Eizu) zerbitzuaren kudeaketa kontratatzea. Horretarako baldintza plegua eta teknikoak onartu zituen eta deialdia GAOean argitaratu zen (2012-04-04)

Legeak ezarritako epean, bakarrik AISIHEZI AISIALDI ELKARTEA enpresa aurkeztu zen.

A kartazalaren dokumentazioa kalifikatu ondoren, egiaztatu zen, baldintza plegu administratiboan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu zirela.

2012ko apirilaren 16an, automatikoki ebaluatzekoak ez diren balioespen-irizpideei buruzko dokumentazio teknikoa jasotzen duen B kartazala ireki zen.

Proiektua osatzen duen dokumentazio honi proposamen ekonomikoak (automatikoki baloratzen den irizpidea) baino balorazioa handiagoa duenez, gazteria saileko udal teknikariak (Miren Kortaberria), Gipuzkoako Foru Aldundiaren gazteria arloko aholkulariak (Ugaitz Iburguren) eta Ordiziko Udalaren gazteria teknikariak (Koro Ruiz) osatzen duten adituen batzordea arduratuko da proiektu hori baloratzen.

Ekintza honetan adituen batzordeak emandako txostena ezagutzera ematen da eta 2. eta 3. esleipen-irizpideei emandako puntuazioa honako hau da:

- 2. Irizpidea: 62,9 puntu.
- 3. Irizpidea: zerbitzu edo programa osagarriak: 12 puntu.

Jarraian C kartazala ireki da: proposamen ekonomikoa. Eskainitako prezioa, litzazio prezioarena da, hau da, 89.000 €.

BEZtik salbuetsita dagoen elkartearen denez, ez da kopuru honen aipamenik egiten.

Horren ondorioz, lizitatuak lortutako puntuazioa ondorengoa da:

- Proposamen ekonomikoa: 0 puntu.
- Proiektua: 62,9 puntu.
- Zerbitzu osagarriak: 12 puntu.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak, Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik. Haurrentzako (Berritsu eta Txelotxe) eta nerabeentzako (Eizu) zerbitzuaren kudeaketa, AISIHEZI AISIALDI ELKARTEARI esleitzea, 89.000 €ko prezioan, baldintza plego administratibo eta teknikoaren eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eskola ikasturtearekin bat etorriz. Gainera beste hiru urtez luzatzeko aukera egongo da. Gauzatze-epea 2012ko irailaren 1etik 2013ko ekainaren 30era izango da.

Hirugarren. AISIHEZI AISIALDI ELKARTEARI errekeritzea, hamar laneguneko epean, erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta 4.450 €ko behin betiko fidantza aurkezteko.

Laugarren. Aipaturako dokumentuak aurkeztu ondoren, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako Alkateari baimena ematen zaio. Ondoren kontratu administratiboa formalizatuko da.”

Bozketa eginga, aho batez onartu da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Atal honetan, azaldu da Alkateak Udalbatza Osoari aurkeztu behar dion proposamena, Udal aurrekontua exekutatzeko arauaren barruan eta II eranskin modura, denboraldiko kontratazioak egiteko ezartzen diren irizpideei buruz.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko bostak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.